

GABONETAKO DEKORAZIO LEHIAKETAREN OINARRIAK

1. HELBURUA.

Trebiñuko Konderriko Udalak Gabonetako Dekorazio Lehiaketa aurkeztu du, Trebiñuko Konderriko elkarte, kolektibo eta norbanakoei zuzenduta, helburu hauekin:

- Trebiñuko Konderriko herritarren parte-hartze aktiboa dinamizatzea.
- Gabonetako giroa lankidetzan sortzen laguntzea.
- Gabonetako dekoraziorako materialen gaineko hausnarketa sustatzea.
- Herritarrei eta taldeei protagonismo aktiboa ematea, udalerriko garapen eta esku-hartze komunitarioko iturri gisa.

2. PARTAIDEAK

Trebiñuko Konderriko elkarte edo kolektiboek zein dekorazio muntaketa udalerriko ondoko espazioetan muntatzen duten norbanakoek parte hartu ahal izango dute: elkartzeko espazio publikoak, kalea edo plaza.

Dekorazioak Eguberri egunarekin eta horren arrazoi tradizionalekin zerikusia izan beharko du, eta parte hartzaileek askatasun osoa izango dute teknika eta estilo aldetik.

3. ERABILITAKO MATERIALAK.

Parte hartzaileek egokitzat jotzen dituzten era guztietako materialak erabili ahal izango dira, bai naturatik edo beste ingurune natural batetik datozen materialak ere, betiere mozketa naturaletatik badatoz. Argiztapen elementuak ere erabili ahal izango dira.

4. IZEN-EMATEA.

Lehiaketan parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute **azaroaren 4tik 2024ko abenduaren 13ra arte**. Horretarako, **posta elektronikoa bidali beharko dute (izena emateko beste biderik ez da onartuko)** honako helbide honetara: euskera@condadodetrevino.es, batetik, izena emateko orria beteta eta, bestetik, egindako dekorazioaren lau argazki eta bideo bat, dagokion Balorazio Batzorde Iraunkorrean ebaluatzeko.

5. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Dekorazio-elementuak parte-hartzaile bakoitzak muntatu eta desmuntatuko ditu. Gabonetako apaingarriak ikusgai egon beharko dira ezarritako epean (2024ko abenduaren 24tik 2025eko urtarrilaren 7ra, biak barne). Beraz, **abenduaren 22rako dekorazioa amaituta eta ikusgai egon beharko da.**

Parte-hartzaileek egindako **dekorazioaren 4 argazki eta bideo grabatu bat (argazki-muntaia ez dena) bidali beharko dituzte.**

Esposizio-aldian erabilitako materialaren akatsen bat gertatuz gero, dekorazioa muntatu duen kolektiboaren edo partikularren erantzukizuna izango da, eta hura zuzentzeko eskumena izango du.

6. ERAKUNDE ANTOLATZAILEA.

Trebiñuko Konderriko Udala.

7. EPAIMAHAIA

Epaimahaia Udaleko langileek osatuko dute. Epaimahaiak lehiaketara aurkeztutako argazkiak eta bideoak baloratuko dituzte.

8. BALORAZIOA.

Epaimahaiak irizpide hauek hartuko ditu aintzat:

- A) Diseinua.
- B) Originaltasuna.
- C) Argiztapena.
- D) Tokiko balioak sustatzea.
- E) Erabilitako material birziklagarrien kopurua eta tipologia.

Epaimahaikide bakoitzak puntu 1 eta 5 bitarteko puntuazioa emango dio dekorazioari. Berdinketa emanez gero, berriro puntuatuko da, baina oraingoan 1etik 3ra eta horrela jarraituko da irabazle argi bat egon arte.

Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da, eta epaimahaiak horrela erabakiz gero, saria eman gabe utzi ahal izango da.

Epaimahaiaren erabakia onartzeko konpromisoa hartzen dute parte hartzaileek.

9. SARIAK.

1. saria: bertako produktuekin osatutako saskia (300 euroko balioarekin).
2. saria: bertako produktuekin osatutako saskia (150 euroko balioarekin).

10. SARI BANAKETA:

Sariak Trebiñuko Konderriko Udalean banatuko dira, irabazleekin adostutako egunean. Urtarrilean emango da erabakiaren berri.

* Lehiaketa honetan izena emateak oinarri guztiak berariaz onartzea dakar.

Izen-emate orria

1. Talde/Elkarte/Herriaren izena:
2. Arduradunaren izen-abizenak:
3. Eraikinaren, plazaren edo kokalekuaren helbidea:
4. Helbide elektronikoa:
5. Telefonoa:
6. Erabilitako materialak:
7. Argazkiak atxikita (sei argazki eta bideo bat).
8. Izen-emate orri hau sinatuz:
 - Lehiaketan parte hartzeko baldintzak onartzen ditut.
 - Trebiñuko Konderriko Udalari, bere dibulgaziorako materialetan instalazioaren irudia denbora mugagabean erabiltzeko baimena ematen diot.

Sin.:

Trebiñun, 2024ko abenduaren ean.